

Astekaria

# BARREN

elgoi



## Azaroan txerri boda



### LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana, 11. Tel: 74 10 11 Elgoibar

## 3 LAU HANKATAN

"Pertsona eta talde askok jasan dituzte beren azalean gure herrian aspaldian dugun bake ezaren ondorioak." **Joxin Arregi**

## 6 ERREPORTAIA: TXERRI BODA USADIO ZAHARREN ARABERA

Gaztelerazko esaera zaharrak, "txerri guztiei heltzen zaie bere San Martina" esaerak, azarora txerria hiltzeko garai aproposa dela dio

## 8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ERREGEAK ALA OLENTZERO

**Iñigo Etxaniz:** "Urrutira joan gabe, Elgoibarko San bartolome elizaren egoera penagarriaren errudunak, neurri handi batean, usoak dira."

**Elena Intxausti:** " Zergatik ez dute usategi bat egiten lehen uraren depositoa zegoen tokian?"

## 12 BERBETAN Paulino Alonso

"BASTOIAK ANPAROA EMATEN DIO OINEZKOA"

## 14 KIROLA:

GAIA: GOGOR HASI DIRA ELGOIBAR K.E.KO ESKUBALOI TALDEAK  
ELKARRIZKETA: **Jose Cruz Montes**

## 17 KULTURA

ZINE ETA OSASUN PROGRAMA IRAKASKUNTZA ERTAINEAN

TXANDAK

### FARMAZIAK:

13, larunbata: **ORMAZABAL**

14, igandea: **ORMAZABAL**

15, astelehena: **ETXE BERRIA**

16, asteartea: **ETXE BERRIA**


17, asteazkena: **ETXE BERRIA**

18, osteguna: **ETXE BERRIA**

19, ostirala: **ETXE BERRIA**

### OKINDEGIAK:

14, igandea: **ZABALETA**



## PREMIAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak .....	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak .....	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua	7410 08
Odol Emaileen elkarte.....	741190

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	740442
PESA (Eibar) .....	112131
Taxi Geltokia .....	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua...	742158
Mendaroko Udala .....	756100
Ongizate zerbitzua .....	743736
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....	740142
IMI .....	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC) ..	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea .....	741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .....	740296
Zaharren Biltokia .....	740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua .....	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**Argitaratzailea**  
Elgoibarko Izarra  
**Laguntzailea**  
Elgoibarko Udala  
**Zuzendaria**

Alberto Agirreazaldeg  
**Hizkuntza Arduraduna**

Anjel Ugarteburu  
**Erredakzio kontseilua**  
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,  
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,  
Jose Inazio Sarasua

**Kazetaria**

Ainhoa Lodoso

**Maketatzailea**

Maite Rementería

**Publizitatea**

Nekane Etxaniz

**Administrazioa**

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

**Kolaboratzaileak**

Myriam Aldazabal, Alberto

Ansategi, Isabel Ansola,

Joxin Arregi, Belen

Arrizabalaga, Bertso Eskola,

Agur Miren Barandiaran,

Hasier Etxeberria, Ina

Garagarza, Maite Iriondo,

KOKOE, Imanol Larrañaga,

Koldo Lizarralde, Aitor

Lodoso, Nerea Lodoso,

German Meabebasterretxea,

Jasone Osoro, Diana Perez de

Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor

Zabaleta

**Banaketa arduradunak**

Imanol Larrañaga

Inaxio Garmendia

**Inprimategia**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Ofiati)

**Tirada:**3.000 ale

**Lege gordailua:**SS-1.038/92

**ISSN:**1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere

gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta

iritzien erantzunkizunik.

**L**AU HANKATAN



**Joxin Arregi**

# Bake agiria

**P**ertsona eta talde askok jasan dituzte beren azalean gure herrian aspaldian dugun bake ezaren ondorioak. Hainbeste sufrimentu, min eta injustizia ikusirik, bidezkoa iruditzen zait bakea oztopatzen eta atzeratzen duen edozein jokaera baztertzeko eskatzea.

Baina eskaera horrekin batera guztiok bake-egite horretan parte hartu behar dugula iruditzen zait. Lan horretan aritzeko, bakoitzak garbi izan behar du bere ustez bultzatu behar diren jokaera nagusiak zeintzu diren. Nik, neretzat, ontzat hartu ditudan batzuk hauexek dira:

1- Bizitza, gizakiaren lehen eskubidea da, edonor izanik ere gizaki hori eta nonahi egonik ere. Ez dut nahi inor hiltzerik, ezta torturatzetik ere. Horregatik pertsona guztien bizitzaren eta bere eskubide guztien aldeko jokaera hartu nahi dut.

2- Pertsonak eta herriak gai dira beren istuluekin konponbidea bake-bideetatik aurkitzeko. Ezin dut

onartu, gogorkeriaz ezarritako irtenbiderik. Gure herriak askatasunez hartu behar ditu bere erabakiak.


3- Egiak indar berezi bat du bakea egiteko. Ezin dut onartu gezurra estrategia gisa erabiltzea, ezta egia nork bere interes politiko eta sozialen zerbitzura nolanahi erabiltzea ere.

4- Elkarrizketak sortu dezake bake iraunkor bat gure artean. Baina, ez dut onartzen elkarrizketa estrategia kalkulatu baten zerbitzuan erabiltzea.

5- Gure artean barkamenak leku berezi bat hartu behar du. Mendekuak eta gorrotoak pertsonak eta herriak luzarorako lotzen eta hartzen ditu.

6- Inork ez dugu egia biribilik, eta inork ez dugu herri guztiaren ordezkariarik. Dena ez da zuria ala beltza, eta bakoitzak bere ideiak besteengana hurbiltzeko eskubidea du, baina besteek eskubide osoa dute ideia horiek onartzeko edo alde batera uzteko.

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



**Ama Birjina  
Sortzez Garbiaren  
Bederatziurrena  
dela eta...**

Herritar maiteok: Zue-  
tatik askok gogoratuko  
duzute zelan, Elgoibarko  
parrokian bederatziurren  
hau betidanik egin zen  
eta Maalan, Ama Birjina  
Milagrosiarena. Gero,  
denak desagertu ziren,  
(arratsalde Meza jarri  
zelako izango zela uste  
dut).

Ama Birjina, denok  
gure herriko eta etxeko  
bezala maite dugu eta  
nahi dugu. Horregatik  
ematen zaizkio hainbeste  
izen; Arantzazu, Koro,  
Milagrosa Madalenarena,  
Arrate, e.a.; Jesusek  
Kurutzetik, doai eder,  
opari hau egin zigulako;  
bere Ama, gure Amatzat  
ematea. Gure kutuna bera  
dugu. Baina izen horiek  
ederrak izan arren, denak,  
“adokazioak” dira. Ez  
halaxe, Sortzez Garbia  
izatearena Jaungoikoak

egindako, doai, berezita-  
sun miragarria da; bere  
Ama izateko egina. Horregatik aingeruak  
esan zion “Poztu zaitez  
graziaz betea zarelako.  
Pribilejio hau duelako, jai  
honek, kristau herrian oso  
urruti utzi ditu Zeruko  
Amari guk ematen diz-  
kiegun beste adokazio  
guztiak. Halaxe Roca  
Lizarriturri eta Leonor  
Zulaikak adierazten dute,  
nola baserri guztietatik  
jendea jeisten zen elizki-  
zun honetara, lastoasauak  
eskuetan zituztela, eta  
prozesio politak ikusten  
zirela, mendiko bide guz-  
tietan, hori zelako. Ze jai,  
egun handia, izaten zan  
egun hau Elgoibarren  
denontzat, (edo gehienent-  
zat eta Mariaren alaba  
eta Luistarrentzat. Gure  
nahia litzateke, parrokian  
berriro jartzea, Ama Bir-  
jina Sortzez Garbiaren  
bederatziurrena.

**Mari Carmen Garate**

**Elgoibarko  
Liburutegia**

Astero liburutegira  
etortzerakoan ikasteko hel-  
buruarekin etortzen gara.  
Baina liburutegiko “andre  
agurgarriak” ez digu nahi  
dugun tokian jartzen uzten.  
Eta beraz, zarata dagoen  
tokira bidaltzen gaitu.  
Berak esaten du liburute-  
gian isilik egon behar dela  
eta egunero erru guztiak  
guretzako datoz.

Elgoibarko liburutegia  
zerbitzu publikoa denez,  
gure eskubideak erreibin-  
dikatzan ditugu.

**Elgoibarko Gazte  
talde bat**

**Intsumisioari bai**

Elgoibarko Talde Anti-  
militaristak azken eguno-  
tan gure herriak Ertzantza-  
ren aldetik jasan duen oku-  
pazio poliziala salatu nahi  
du, momentu honetan  
kalean ziren herritarren  
osotasun fisikoa arriskutan  
jarriz (pistola eskuan). Ert-  
zantzaren ekintza negar-  
garri guzti hauen ardura

**E**SKUTITZAK

Udalak duela uste dugu,  
hain zuzen ere PNVk,  
ekintza polizialak agindu  
eta gero gurekin hitz egite-  
ari uko egiten diolarik.  
Ertzaina bat, kalean zehar  
pistola eskuan hartuta  
ikustean, espainiar faxis-  
moaren garai negargarrie-  
nak gogorarazten dizkigu,  
herritarren artean beraien  
demokraziaren sostengua  
diren indarra, ikara eta bel-  
durra inposatuz. Guzti hau  
Talde Antimilitaristek zoz-  
keta eta epaiketen aurkako  
kanpaina bat aurrera dara-  
magunean gertatzen da:  
“epaiketa eta zozketen  
aurka, denok batera intsu-  
misioa”, Euskal Herri guz-  
tian zehar, antolatutako  
ekintzak gogorkeria berdi-  
nez erreprimituak izan  
direlarik. Honekin batera  
epaileen jarrera salatu:  
batetik, intsumisoak zigor-  
tu eta kartzeleratzen dituz-  
telarik, eta beraien burua  
zuritutuz intsumisioaren des-  
penalizazioa eskatuz, bes-  
tetik.

**Elgoibarko  
Talde Antimilitarista**

**CHINA TOWN**  
Txinatar jatetxea

- ▷ 2, 3, 4, 5, 6, 8,  
personentzako menuak
- ▷ Ezkontzak, Despedidak...
- ▷ Etxera eramateko janaria

**Eguneko Menua:  
900 pta**

Ifar-Kale, 3. 70 21 55  
EIBAR

**I  
L  
E  
A  
P  
A  
I  
N  
D  
E  
G  
I  
A**

**FADEK**  
SOLARIUM

*Errosario Kalea, 35 behe*  
74 26 92 Elgoibar

**ORAIKO**  
SAN FRANZISKO 25  
E L G O I B A R

“**A**ma Birjina Sortzez Garbiaren Argazki hau, Ezenarro ahizpek utzi didate eta Ama Birjinari bederatzuurrenean gure parrokiaren egiten zitzaion denborakoa da. Halaxe eta oraindik hobeto ere jartzen zen, Bartolome doatsuaren aldarean izkutatuta, han goian Ama Birjinaren irudia. Peanak 4 metro altura izango zituen eta Ama Birjina hara jasotzeko, arotzek aingeruen ondora igo behar zuten sokekin. Aingeruak dauden tokiak 10 bat metrotako altura izango du.

Ezenarro ahizpek sekulako lanak egin zituzten eta omenaldia ere merezi dute.

Nik uste berriro ere hasiko direla parrokiaren bederatzuurrena ospatzen. Egunak hauexek dira: Ama Birjina Sortzez Garbiarena, azaroaren 30etik abenduaren 9a arte (Ama Birjinaren jaia), eta Ama Birjina Milagrosarena, azaroaren 18tik 27ra.”

**Mari Carmen Garate**




AZKUE



**MAPFRE**  
ASEGURUAK  
*Mari Luz Rojo*

Mota guztietako aseguruak zure esku


San Frantzisko, 34 Telf: 74 05 82 - 74 14 04



**BETI ARGi S L**

*Erregalu artikulua  
Instalazio orokorrak  
Sukaldeko tresneria.*

**ERROSARIO 6 behea. Tel: 74 16 44**



# Txarri Boda, usadio zaharren arabera

Gure baserriak, aintzinako usadio zaharren gordeleku izan ohi dira. Teknologiak baserriarren lana sinpletu eta erraztu duen arren, baserriko bizitzaren hainbat arlo, duela 500 urte bezala gordetzen dira. Horietako bat etxean hazitako txerriaren sakrifizioa edo “txarri-boda” da. Aski ezaguna den gaztelerazko esaera zaharrak, “txerri guztiei heltzen zaie bere San Martin-a” esaerak, azaroa txerria hiltzeko garai aproposa dela dio.



↳ Txerria hil ondoren odolustu egin behar da.

**Tradizioak** hala esan arren, txerri hilketa, giroa gehiago hozten denean, urtarrilean edo otsailean, egiten dutela esan digute Elgoibarko baserriarrek. Dena den, San Martin egunak, nekazal urtearen bukaera adierazten du eta data horretatik aurrera, baserriak, negu gorrirako prestatzen hasten dira.

Tradizioaren arabera, baserriarrek urtean zehar kortan hazitako txerria garai honetan hiltzen dute. Kontserbazio arrazoiengatik guztiz beharrezkoa da eguraldi hotza izatea txerria hiltzeko. Txerriaren

---

**Txerria  
lurrean jarrita  
dagoela  
garoarekin  
estaltzen dute  
azpitik eta  
gainetik eta,  
garoari su  
ematen zaio.**

---

okela alperrik galdu egiten da mamorroak sortzen baitzaizkio eguraldi beroarekin.

## Txerriaren hilketa

Elgoibarko baserri batean zazpi hilabeteko txerri hilketa ikusten izan ginen pasa den asteburuan. Lana, usadio zaharrak jarraituz egiten da. Aiztoak ondo zorrotzu ondoren, txerriaren hilketari ekiten zaio. 130 kiloko (8-9 arrua) pisua duen txerriak, hil eta gero, 100 bat kilo izango ditu kanalean. Antzerako lanetan aritu den pertsona batek ematen ditu aginduak eta beste hiruzpalau lagun

dituela hasten da lanean. Txerri-boda gertakizun berezia izaten da gure base-errietan.

Kortan dagoen txerria baserri atarira ateratzen da. Animalia egurrezko mahai batean etzanda dagoela, gantxo moduko bat sartzen zaio lepotik eta hankak soka batekin lotzen zaizkio ez mugitzeko. Lehendabizi, odola balde batera botatzen da gero odolosteak egiteko baliagarri izango dena. Odola behin eta berriro mugiarazi behar da ez gogortzeko.

Hurrengo pausua txerriaren ilea edo zurdea erretzea da, horregatik erre-keta bitartean lepoan duen zuloa estali egiten zaio aza ostoarekin. Erreketa "lege zaharra" jarraituz egiten da. Txerria lurrian jarrita dagoela garoarekin estaltzen dute azpitik eta gainetik eta, garoari su ematen zaio. Sarde baten laguntzaz su garretan dagoen garoa hartu eta, txerriaren gainean jartzen da. Operazioa behin eta berriro errepikatzen da alde guztietako zurdeak guztiz erre arte. Erreketa bitartean, txerriari hartzakalaz kentzen zaizkio.

Oso garrantzitsua da erre-keta prozesua ganoraz egitea.

Txerria urarekin garbitu eta lepoan sartutako aza ostoa kendu eta gero, tripak kentzen zaizkio. Esteak kontu handiz atera behar zaizkio apur ez daitezen, odolosteak egiteko erabili-



➔ Garoarekin txerriaren zurdea erre ondoren, ondo garbitu behar da.

ko bait dira gero. Txerriari makila bat luzetara sartzen zaio eta zutik jartzen da orma baten kontra. Azkenik, "arraixia" egiten zaio bizkarrean, hau da, ondo zorrotutako aiztoaz goitik beherako ebakia egiten zaio. Txerria 24 orduz ormaren kontra edukitzen da okelak tentetasuna hartu arte.

### **Kontserbazioa eta txerriaren elaborazioa**

Okelak tentetasuna hartzen duenean txerria zatitu egiten da. Okela, gatza eta berakatzarekin igurtzi ondoren kutxa batean sartzen da eta pisua jartzen zaio gainean. Gatzetan hamabi bat egunez egon behar du okelak. Buelta eman eta beste hamabi bat egunez edukitzen da gatza,

---

**Gaur egun, izozkailuek kutxa baztertu dute eta gatzaren prozesua ez da burutzen.**

---

alde guztietan berdin hartu dezan. Piperrautsa eman eta zintzilik jartzea baino ez da falta. Gaur egun, izozkailuek kutxa baztertu dute eta gatzaren prozesua ez da burutzen. Dena den, izozkailuan tratatutako okelak kutxakoak baino tentetasun eta gustu gutxiago izaten du.

Odolosteak egunean bertan egin behar izaten dira. Txerriari atera zaizkion hiru bat litro odolekin, 20 bat kilo odoloste egingo ditu etxeoandreak. Kipula mordo bat, txerriaren gantza eta odola dira odolosteak egiteko behar diren osagaiak. Txorizoak bost-sei egunetara egiten dira.

Dagoeneko, datorren urterako txerria erosi eta hazi, eta, aurtengoa jatea besterik ez da geratzen.

# Usoak hil egin behar direla uste duzu?

Norbaitek adarra jotzen baldin badizu eta zure kontra ari bada, normala izango da zuk ere bere kontra zerbait izatea, ez? iritzia besterik ez bada ere!



**U**daberrian eta udazkenean gure mendietatik zehar pasatzen diren usoen kontra ez daukat ezer; bai ordea, urte osoan zirinekin bazter guztiak "bedeinkatzen" ibiltzen diren uso nazkagarri horien kontra. Bedeinkatu hitza erabili dut elizan eta inguruetan ibiltzen direlako bati-pat. Zeini ez diote garbitu berri dagoen kotxea ordu gutxitara bedeinkatu?

Zein etxeko emakume ez da ibili bere onetik irtenda usoak leihoan kaka egin diotelako edota sikatzen zeuden arropak zikindu dizkiotelako? Eta kentzen erraza izango balitz, gaitzerdi! Probatu duenak badaki sikatu eta gero zenbat kostatzen den kentzea. Batzuk esango duzue politikak direla, jaten eman behar zaiela, umeeek jolasteko oso aproposak direla, askatasunaren sinbolo direla...

Denbora piska bat hartu eta uso talde bati begira egon denak badaki putreak baino pizti txar, berekoi eta burrukazaleagoak direla. Batez ere, arren artean.

Politak izateak ez die gainontzeko gauza politikak itxuragabetzeko eskubiderik ematen. Ikus bestela etxeen fatxadak, hamaika artelan eta batez ere, aitortu behar, benetako "artistak" direla eliza eta katedraletan kalteak egiten.

Urrutira joan gabe, Elgoibarko San Bartolome elizaren egoera penagarriaren errudunak, neurri handi batean, usoak dira.

Bukatzeko, zerbait esan nahiko nuke: kale usok ez dakarte inongo mesederik eta sortzen dituzten kalteak kontutan izanda, hobe Donostian egin dutena Elgoibarren ere egingo balute.

**Iñigo Etxaniz**



Lehengo egun batean etxeko balkoian uso bat aurkitu naban hankak likaz josita. Ezin zeban hegan egin. Hanketan zeuzkan trabak kendu nizkion eta alde egin zuen hegan. **Usoak gaixorik eta elbarrituta daude. Niri behintzat, pena izugarria ematen didate.**

**B**atzuei traba handia egiten diete usoek, kaka egiten dutela esaten dute, kanpoan isekita duten erropa guztia zikintzen dutela eta beste gauza asko ere bai. Baina nere ustez usoak oso hegazti ederrak dira eta ondo zainduta baleude, asko edertuko zaben herria.

Baina inork ez ditu usoak zaintzen. Bai, batzuek janaria ematen diete baina badira benenoa ematen dietenak ere eta asko eta asko gaisorik eta erdi hilda daude. Plaza txikiko eskoletako ganbaran eta elizako zakapian egoten dira baina horiek ez dira bizileku aproposak beraientzat.

Beste batzuek usoak hil behar direla esaten dute. Ezin dut sinistu horrela pentsatzen duen jendea dagoenik. Animaliak

eta txoriak hil nahi izatea ikaragarria dela uste dot.

Hegaztiak eta kasu honetan, usoek, gure maitasuna eta errespetu osoa merezi dute.

Horregatik nere proposamena honako hau da: zergatik ez dute usoentzako etxe polit bat egiten lehen uraren depositoa zegoen tokian? Han denak elkarrekin egongo lirateke eta seguru egon, norbait arduratuko balitz jaten ematen eta zaintzen, ez zutela hainbeste molestaturiko.

Plazatik oso polita ikusiko litzateke hain ganean usategi polit bat uso txuri eta ederrez josita. Egin dezagun gure esku dagoena herria ahalik eta ederrena jartzeagatik.

**Elena Intxausti**



**E TA ZURE USTEZ?**

**Usoak hil egin behar direla uste duzu?**




**Carmen Arizmendiarieta**  
73 urte, etxekoandrea

Usua asko gustatzen jat. Ni animalizalia naiz eta pena handixa ematen dia hiltziak. Baina kaltia eitxen badabe zeezer ein bihar. Hiltzia baino nahixao edozer.



**Ander Mujika**  
8 urte, ikaslea

Gaizki dago usuak hiltzia. Nunbaitxera eruan eta zaindu ein biharko zian. Lekuren bat jarri eta jatekua eman.



**Francisco Ribao**  
21 urte, ikaslea

Ondo iruditzen zait usoak hiltzea benetan arazoak badaude. Gehiegi edo gaisorik baleude adibidez; jendearen kexengatik ez.



**Antonia Martinez**  
48 urte, etxekoandrea

Usoak hiltzeak pena emanngo lidake. Gaisorik badaude har ditzatela eta zaindu. Usoek ez diote inori minik ematen.



**Maria Luisa Martinez**  
28 urte, saltzailea

Gaisorik baldin badaude hil, ze danontzako kaltegarrixa da. Usuak bestela politxak dira, herriari gauza politxa emoten deuse.



**Iñaki Santos**  
45 urte, torneroa

Toke erromantikoa ematen dutela uste dut. Gehiegi baldin badaude hil egin behar dira baina denak ez. Batzuk utzi beharko dira ez?

**EIBAR**

**OSASUNDEGIA**

- |                           |                          |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia            | 9- Ortodontzia           |
| 2- Kardiologia            | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia                | 11- Pediatria            |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria            |
| 5- Dermatologia           | 13- Radiologia           |
| 6- Ginekologia            | 14- Traumatologia        |
| 7- Laborategia            | 15- Urologia             |
| 8- Barne medizina         |                          |

*Urkizu Pasealekua, 11.  
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).  
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*

**Logopedia  
Zentroa**



**Isabel Gil Arrocha**

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

**Bidebarrieta, 27-B  
Tel. 11 84 71 EIBAR**


## Morkaiko Mendizale Elkartearen 50. urteurrena

Morkaiko Mendizale Elkarteak 50. urtemugako ospakizunen artean, hainbat ekintza antolatu ditu datorren asterako. Asteartean, hilak 16, Morkaiko elkartearen historiari buruzko argazki erakusketa eta liburuaren aurkezpena egingo da. Egun berean, Kultur Etxean arratsaldeko 7,30etan, Iñurategi anaiek Makalu mendira egindako espedizioaren diapositibak emango dituzte. Ostiralean, hilak 19, toki eta ordu berean, Aitzgorri mendilerroari buruzko diapositibak emango dira. Igandean, hilak 21, jai eguna egingo du Morkaikok. Eguerdiko 1,15etan, Haritz Dantzari taldearen eskutik, omenaldia egingo zaie Morkaiko lehendakari izan direnei. Ondoren Morkaikoren oroigarri bat desestalko da eta eguna bazkari herrikoi batekin bukatuko da.



**Basurde** ikusgarri hau pasa den larunbatean harrapatu zuen Arno mendian Elgoibarko eta inguruko herrietako ehiztariez osatutako kuadrila batek. Mendian bizi den animalia honek 90 kilo pisatzen ditu eta 5 tiro bota behar izan zituzten akabatzeko. Ehiztari kuadrila hau astebukaera guztietan ateratzen da ehizara. Inguruko mendietan basurde asko dabilela esan zigun kuadrilako kide den Patxi Arriolak, baina ez omen da oso arrunta neurri honetako basurdea ikustea, eta are gutxiago, harrapatzea. Argazkian ikus daitekeenez, animaliak letagin edo "defentsa" izugarriak dauzka, eta kolpe batez, erraz akaba dezake ehiza txakurra.

Basurdearekin zer egin zuten? Kuadrilakoen artean jan, noski!



**Iban** Urizar elgoibartarra, Donostiako Musika Bandan hartu dute tronpeta jotzeko. Pozik dago bandan jotzera deitu dutelako, baina musika ikasketak burutu ahala, ez duela beste bandak eta orkestak ezagutzeko aukera alde batera utziko esan digu. Ibanek 18 urte ditu, UBI ari da ikasten eta tronpeta ikasketetan aurtan 7. kurtsoa egiten ari da Donostiako Musika Kontserbatorio Nagusian.

10 urte zituela, Inazio Bereziartua Musikeskolako solfeo irakasleak, Javier Indak, tronpeta ikastera "behar-tu" zuela esan digu. Lehendabiziko urteak gogor xamar-rak izan ziren "dena oso teknikoa zelako" baina 9 urte eta gero "gustua hartu" omen dio tronpetari. Orain arte Elgoibarko bandan aritu da jotzen eta hemendik aurrera Donostiako bandan arituko da.

PUB



elgoibar

**Fotero**

**OKINDEGIA  
OPILDEGIA**

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

**ZALDUA  
ITURGINTZA**

**GAS ETA BEROGAILU  
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

**Iraegui**

**ERROTULAZIOA**

☎ 74 39 52  
San Antolin 74 37 06

## Edu Arrilaga argazkilariak *Sustatu* lehiaketako lehen saria irabazi du



Eusko Jaurlaritzak urtero antolatzen duen *Sustatu* lehiaketako argazkilaritza sailean, Edu Arrilaga elgoibartarra izan da lehen saria lortu duena. Eduk, 750.000 pezeta jasoko ditu "Complices del tiempo" izeneko lanagatik. Gogoratu, iaz, Edu Arrillagak sariketa berean bigarren postua lortu zuela.

Aurten, 3. adinekoiei eskainitako urtea denez, *Sustatu* sarien gaia berori izan da. Eduren argazkien

gaia herriko bi pertsona izan dira: elbarri dagoen Felipe Iriondo eta bere zaintzaile izan den Urko Lizarralde. Eduk, Urkok Feliperi eskaini dion laguntza eta berari esker deskubritu duen mundu berria isladatu nahi izan du.

Edu Arrillagak bi pertsona hauen kolaborazioa eskertu nahi du, argazkiak ateratzerakoan izan duten pazientziagatik.

Zorionak Edu!


## Kubako dantza ikastaroa Kiroldegian

Elgoibarko Olaizaga Kiroldegiaren zuzendaritzak dantza kubarren ikastaroa antolatu du datorren hilak 15etik abenduaren 3ra bitartean. Ikastaroa Arnaldo Patterson kubarrak emango du. Sasoi batean dantzari famatua izana, Errusiako "Bolshoi" antzokian ere izan da dantza egiten.

Klaseak astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira eta honako ordutegi ezberdin hauek egongo dira: goizez 11etatik 12etara, arratsaldez 3etatik 4etara eta gauetz, 8,15etatik 9,15etara.

## Nazioarteko xake txapelketa Elgoibarren

Azaroaren bukaera aldera Nazioarteko Xake txapelketa hasiko da. Xake partiduak Kultur Etxean jokatuko dira eta bertan xake jokalariek ezagunek parte hartuko dute. Joan den urteko txapelketako irabazleak, Elizbar Ubilava-k, ez du oraindik txapelketan izango den ala ez esan. Ubilavak, nazioarte mailan entzute handia duten jokalariei irabazi zien. Tartean Zenon Franco, Veselin Topalov eta Felix Izeta euskalduna zeuden. Txapelketa hau Udalaren diru laguntzari esker antolatu da.



## Intsumisioaren

alde, Elgoibarko Talde Antimilitarista mobilizapenak burutzen ari da egunotan. Asteartean 200 gazte inguruk manifestazio batean hartu zuten parte eta asteazkenean, 50 bat lagunek argazkian dugun giza katea egin zuten. Mobilizazioetan istiluak ere izan ziren manifestari eta ertzainen artean. Istiluen ondoren Alejo R.A. izeneko gazte bat atxilotu zuten ertzainek, baina BARRENEk jakin duenez, asteazkenean bertan, epaitegitik pasa ondoren, aske utzi zuten.

Antimilitarista Taldeko kideek diotenez, giza-katea amaitu ondoren, ertzain batek, herriko gazte bat atzeman nahian, pistola batekin mehatxatu zituen, baina Ertzaintzak gezurtatu egin dio BARRENI azken hau.

Bestalde, *Jarrak* manifestaldi baterako deia zabaldu du, hilak 12 ostirala arratsaldeko 8etan, ertzainaren jokaera salatzeke

# "Bastoiak anparoa ematen dio oinezkoari"

Errosario kaleko etxe bateko ganbaran, 81 urteko gizonetzko batek bere orduak igarotzen ditu egurrezko bastoiak egiten. Bertan, ikus daitezke bastoi sinpleak eta dotoreak, kalean ibiltzekoak edo mendira eramatekoak.

Pazientzia handiz egindako makila berezi hauen prezioa ezin da kalkulatu: bertan doaz gizon apal honen esku-abilidade hoberenak. Berarekin izan ginen arratsalde batean hizketan.

**- Zertarako balio du bastoi batek?**

- Kalean edo mendian ibiltzeko, anparoa edo babesa ematen dizu bastoiak, hau da, defentsa bat bezalakoa da. Labaindu edo jausteko arriskuaren aurrean beti da demaseko laguntza. Mendian ibiltzerakoan, piztien aurrean ere balio-garria da. Batzutan txakurrak aldendu egin behar izaten dira eta...

**- Zergatik hasi zinen afizio honekin?**

- Orain 16 urte jubilatut nintzan eta badira 7 urte, denbora pasa, ganbaran hasi nintzala arte-lan hau egiten. Hasieran, neuk mendian hartutako makilak ekartzen nituen etxera eta sinpleak egin, gero poliki poliki konplikatukoak egiten hasi nintzen. Hasiera batean, arantza beltza erabiltzen nuen.

**- Zer bastoi mota egiten dituzu?**

- Mota guztietakoak, kalean ibiltzeko dotoreak, gomazko puntarekin edo eta, mendira eramatekoak burdinezko punta zorrotza dutenak. Hala ere, nik dakidanez, askok



**"Gutxi gora behera hilero sei bat bastoi egiten ditut"**

salan jartzen dituzte apaingarri moduan.

Eskuarekin oratzen den parte forma ezberdinekin egiten dut: batzuk biribilak, besteak luzeagoak eta baita txakur buru itxuradunak ere, belarri, begi eta guzti.

Horrez aparte bastoiaren luzera ere moldatzen dut. Erliebeak ere, ezberdinak egiten ditut: suge antzerakoak, eta abar...

**- Horrelako bastoi batek zer erraminta behar ditu?**

- Lehenengo makila zuritu egin behar da. Gero aizkora erabiltzen dut eta ondoren arraspia eta trintzia, forma emateko. Lima latza eta leuna dira hurrengo pausoak. Azkenik lijatik pasatzen ditut eta barniza ematen diet. Azken hau erabiltzen ez naiz oraindik hain

trebea.

Makilak, inguruko mendietatik ateratzen ditut. Oso inportantea da, baita ere, egurra noiz ebaten den, bakoitzak bere sasoiak baitu.

**- Lan honetan zer da inportanteena?**

- Pazientzia handia izatea, eta gero, abilitadiaz ere. Adibidez, bastoiei dotoretzeko jartzen dizkiedan larruzko trentzak egiten ikastea asko kostatu zitzaidan. (Testigu gara oso ondo lantzen dituela).


**- Zenbat ordu ematen dizkiozu lan honi?**

- Segun eguna, baina normalean, ordu bat goizetik eta bi edo hiru arratsalde. Pasiatzea ere asko gustatzen zait. Gutxi gora behera hilero sei bat bastoi egiten ditut eta beste hainbeste sobratzen zaizkit, apurtu direlako edo gaizki irten direlako. (Azkenik, aitortzen digu ahuntzak jandako makila batez egindako bastoia duela gustokoen, ez bait dago berarentzat horrelako egurrik, hain elegante-rik).

**Myriam Aldazabal**

**Jesus Maria Aramendi**

*"Larrañaga" autoeskolakoa*



-Karneta ateratzen duten guztiek ondo gidatzen al dakite? - Ondo, hain ondo ere ez, baina minimo bat bai.

- 18 urte adin egokia ala goizegi da karneta atera ahal izateko? - Goizegi? Behar bada bai.

- Ordu asko ematen dituzu kotxe barruan eserita. Zer moduz ipurdia? -Ipurdia ondo, gerria gaizki.

- Pertsona erlijiosoa al zara? - Bah, hola hola. Zerbait bai.

- Gustatuko al litzaizuke "la ruta del bakalao" egitea? - Ez, pasatu zait horretarako adina, nahiko zahartuta nago horretarako.

- Zer da gehien gorrotatzen duzuna? - Ez dakit... gorrotoa bera. Elkarren arteko gorrotoa.

- Psikoanalizatuko al zinateke? - Ez.

- Lanorduetan istripurik izan al duzu? - Bai, txiki batzuk bai.

- Lehenengoan atera al zenuen karneta? - Bai.

- Zerk jartzen zaitu ehunera? - Emakume eder batek.

- Ikastola publikoa ala pribatua? - Publikoa. Publiko publikoa, baina orain dauden arazoekin... publikoa baina beste era batera.

- Zerk bildurtzen zaitu? -Lehoi batek edo animalia haundiren batek.

- Auto-stop egiten ari den jendea gelditzen al duzu? - Bai, normalki bai.

- Posible balitz, gustatuko al litzaizuke jakitea zer gertatuko zaizun etorkizunean? - Batzutan pentsatzen dot baietz baina hurrengoan igual hobeto ez jakitea.

- Pertsona turbo ala diesela zara? - Batzutan turbo eta beste batzutan diesel. Igual poliki ibili behar den garaian turbo eta azkarrago ibili behar denean lasaiago eta diesel antzera hobeto.

- Zein da bisitatu duzun azken museoa? - Lizarrakoa. Orduan Ramiro de Maeztu idazlearen anaiaren margoak zeuzkan.

Edu Sanz

**BERTSOTAN**

**BIZKAIKO TXERRIARI JARRIAK**

Motibo bat nigana dago etorria esplikatuko banu txit parregarria Bizkaian egin dute prueba berria kutxilorikan gabe hiltzeko txerria erakutsi diote istilu gorria.

Mazuarekin jo du Pepetxok buruan txerria gelditu zen hilaren moduan erretzen para zuten lastuaren suan polainak jaso ditu sutu den orduan diabruak harturik eta ihesi da jua.

Artorik apenas du etxean ikusi egunean bi aldiz asunak egosi beste akziorikan ez zuten merezi argala den medioz joan da ihesi hurrengoan hobeto gizendu ta hazi.

Uztarri

**MALAPE**

**UDA BERRI**  
ELGOIBAR

**ARMUETA**  
Baserriko haragietan berezia  
  
**Harategi Urdaitegia**  
San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

**Orbea**  
Kafetegia  
San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

## Judoko bi domina Ibai gimnasioarentzat

Egoitz Mora eta Juan Jose Martin judoka gazteek zilarrezko eta brontzezko domina bana lortu zuten, Paben (Frantzia) jokaturako nazioarteko judo txapelketan. Guztira 300 judoka inguru izan ziren, benjamin eta infantil mailetan banatuta.

Larunbatean, berriz, hilak 13, Ibai Gimnasioa neska eta mutil talde batek Plaentxiko Kiroldegian jokaturako Deba Arroko txapelketan parte hartuko dute maila infantilean. Igandean, hilak 14, Ibaiko beste talde bat Pabera abiatuko da infantil mailako nazioarteko txapelketan parte hartuz.

### EMAITZAK

#### Futbola

Santurtzi 1 - Haundi 2  
Mondragon 0 - Elgoibar 3 (2. erregio.)  
Martutene 5 - Elgoibar 3 (Jubenilak)  
Eibar 2 - Elgoibar 3 (Kadeteak)  
Lagun onak 1 - Elgoibar 0 (Infantilak)  
Ostarbe 1 - Elgoibar 7 (Neskak)

#### Eskubaloia

Elgoibar K.E.E.T. 32 - C.D. Bizkor Fiansa 10 (Jubenilak)  
Elgoibar K.E.E.T. 31 - C.L. Don Bosco 14 (Kadeteak)  
Usurbil K.E. 15 - C.D. Elgoibar 11 (Neskak)

#### Areto futbola

Elgoibar F.S. 4 - Bar Egoki 3  
Pescados G.J.A. (Ibarra) 3 - Elgoibar 12

#### Judoa

PAUKO NAZIOARTEKO TXAPELKETA  
Egoitz Mora 2.a (Infantila)  
Juan Jose Martin 3.a (Infantila)



Jose Cruz Montes:

## “Marathoiaren azken kilometroak oso gogorrak dira”

**-Zer moduz ibili zara pasaden igandean korritu zen Donostiako marathoian?** -Aurtengo marathoia interes berezia zeukan, munduko kopa zelako. Lasterketa berez nahiko gogorra da. Prestakuntza handia behar da. Diotenez, marathoia ondo prestatzeko bi hila-bete eta piku behar dira eta egunero asko entrenatu, noski.

**-Lortu al dituzu marathoirako zeneuzkan helburuak?** -Helburua 2 ordu eta 45 minutu azpitik ibiltzea zen. Entrenamenduetako azken astean denbora hori ezingo nuela egin ikusi nuen. Astean, 80-90 kilometro entrenatzen ibili nintzen eta marathoia prestatzeko 130-140 kilometro egin behar omen dira. Helburua lortu ez arren, denbora horretatik gertu geratu nintzen: 2 ordu eta 46 minutu egin nituen eta oso pozik nago.

**-Marathoia lasterketa gogorra izango da, ezta?** -Oso gogorra. Donostiako lasterketa oso luzea da. Honetaz aparte, oso inportantea da lasterketan talde bat edukitzea korrika egiteko. Niri ez zait bakarrik korrika egitea gustatzen. Gainera, lasterketaren azken kilometroak oso gogorrak dira. 30-35. kilometrotik aurrera arazoak hasten dira. Hori

pasatzen baduzu lasterketa buka dezakezu.

**-Eguneroko entrenamenduan, zenbat kilometro egiten dituzu?** -Lasterketaren arabera da hori. Marathoia prestatzeko komenigarria da egunero 15 kilometro egitea eta, azken lau asteburuetan 25-30 kilometro. Nik asteburuetan entrenatzen nuen batez ere eta, abiadura lortzeko, serieak egiten nituen pistan.

**-Marathoiaz gain, beste lasterketarik korritzen al duzu?** -Bai, inguruko herrietakoak. Datorren igandean Behobia-Donostia korrituko dut, gero, Santurtzitik Bilbora...

**-Kirola, afizioa izateaz gain, lanbidea ere bada zuretzat.** -Bai. Nire ogibidea irakasle izatea da eta, beste gai batzuen artean, heziketa fisikoa ematen dut Pilar ikastetxean.

• Adina: 35.

• Lasterketa gustukoena? Marathoi erdiak.

• Gogorrena? Erritmoaren arabera.

Behobia -Donostia adibidez.

• Kirola praktikatu ala irakatsi? Praktikatu.

• Beste kirolik? Mendizaletasuna.

### DATOZEN PARTIDUAK

#### Futbola Mintxetan

#### LARUNBATA 13 LARUNBATA

10,00: Elgoibar K.E.-Arantzazuko ama (Infantilak)  
15,30: Elgoibar K.E.- Sporting de Herrera (Jubenilak)  
17,15: Elgoibar K.E.-Mutriku (2.erregionala)

#### IGANDEA 14 IGANDEA

10,00: Urki-Segura (2. erregionala)  
12,00: Urki-Amara (Jubenilak)  
16,00: Elgoibar K.E.-Aretxabaleta (Neskak)



#### Eskubaloia Kiroldegian


#### URRIAK 14

12,00: Elgoibar K.E.E.T.- C.D. Bidebieta (Neskak)


#### Areto Futbola

#### URRIAK 12 OSTIRALA (ZARAUTZEN)

21,15: Nere sport (Zazutzi)- Elgoibar F.S. (2. maila)  
URRIAK 14 IGANDEA (OÑATIN)  
12,30: Aloñamendi (Oñati)- Elgoibar F.S. (1. maila)



# Gogor hasi dute liga elgoibarko eskubaloi taldeak



JOXEAN

**JUBENILEN TALDEA:** Ezkerretik eskumara zutik: Joxean Hidalgo (entrenatzailea), Jon Urbieta, Mikel Artola, Oskar Uria, Jon Urizar, Oier Gurrutxaga, Iñigo Salegi, Iñigo Glaria. Makurtuta: Gorka Muruamendiaraz, Ibon Arregi, Eñaut Oiarzabal, Iker Maguregi, Jose Luis Vadillo eta Jon Zubiaurre. (Falta dira: Sergio Nogales, Juan Mari Leon eta Josu Juaristi)



JOXEAN

**NESKEN SENIOR TALDEA:** Ezkerretik eskumara zutik: Olga Garcia, Mirari Albizu, Nekane Bastida, Leire Esnaola, Ane Iriondo, Lucia Urrusolo, Erkuden Idiaketz, Igor Lizarralde (entrenatzailea). Makurtuta: Ane Urbiola, Silbia Hernandez, Leire Urbiola, Pilar Arriola, Ana Raña, Maria Luisa Leon eta Mari Karmen Leon. (Falta dira: Mari Fernandez, Delia Santos eta Maite Rementeria).

**Elgoibar K.E. ko Eskubaloi Taldeak hiru ekipo ditu aurten konpetizioan. Liga zer nola hasi duten jakin asmoz Elkarteko Zuzendari teknikoa eta presidentea diren Joxean Hidalgo eta Patxi Aranberrirekin hitzegin dugu.**

**Mutilen** jubenil ekipoa ezin hobeto hasi da ekipoaren entrenatzaile den Joxean Hidalgok esan digunez. "Orainarteko partidu guztiak irabazi ditugu eta lehenengoak goaz bigarrenarengandik bi puntutara". Aurtengoa, ekipoak elkarrekin jokatzen duen laugarren urtea da eta honek ezinbesteko garrantzia du ekipoaren konpenetrazioa eta joko maila neurtzeko orduan. Duela bi urte Euskal Ligara joateko aukera galdu bazuten ere, aurten bertan izango direla ziurtatu digu Patxi.

Kadeteei dagokionez hirugarren postuan daude ligan. Maila honetan beste herrietan baino jende gehiago eta maila oso altua dagoela azpimarratu du Elkarteko presidentek.

Bestalde, aurten lehenengo aldiz senior mailako nesken ekipo bat atera da Elgoibarren. Asmoa lurralde mailako ligan sartzea bazen ere, ekipo

gutxi daudenez bigarren mailan sartu dira zuzenean. Momentuz hiru partidu jokatu dituzte, hirurak kanpoan eta ez dute garai-pena ezagutu. Dena den, taldearen lehenengo urtea dela kontutan izanik eta jokalaria gehienak urte asko jokatu gabe egon direnez, bigarren bueltarako emaitza hobekak espero dituzte.

Elgoibarko K.E. Eskubaloi Taldearen iazko aurrekontua 800.000 ptakoa izan zen eta aurten ere beste horrenbestekoa izango dela espero dute. Aurrekontu horri aurre egiteko zozketetatik, Joku eskolarretako arbitraietatik, Udaletxeak emandako dirulaguntzetatik eta Eskubaloiko Kirol Eskolatik ateratzen dute dirua.

Eskubaloi taldeko zuzendari teknikoak, taldekideen artean giro oso ona dagoela esan digu. Era berean, elgoibartar guztiak partiduak ikustera joateko animatu nahi ditu.

**INTERIORES**  
CLARA ARRILLAGA  
Dekoratzaila-Proiektatzailea

- PROIEKTUAK-ERREFORMAK
- LOKAL KOMERTZIALAK
- ETXEBIZITZAK-ENPRESAK

Tel: 74 40 55-74 40 19. Errosario 15

**BATZOKIA**  
Jatetxea-Taberna

P. Muguruza 8. Tel: 74 08 21

**JOSE ANGEL ZABALA**  
**URDAITEGIA**  
Berezitasunak:

- Bakilaua**
- Txerrikiak**

Merkatu Plaza 33-34

**oizmendi**  
Tel: 74 00 16

**TABERNA**



# MORKAIKO M.E.

*50. urtemuga dela eta...*

## AZAROAK 14 IGANDEA

MENDI GARBIKETA (Morkaiko, Hiru Iturri,...)  
eskoletako hurrekin  
Irteera: 9etan Plaza handitik.

## AZAROAK 16 ASTEARTEA

LIBURUA ETA ARGAZKI ERAKUSKETAREN AURKEZPENA  
Ondoren: Iñurrategi anaien DIAPOSITIBA EMANALDIA (Gaia: Makalu)  
Tokia eta ordua: 7,30etan Kultur Etxean.

## AZAROAK 19 OSTIRALA

DIAPOSITIBA EMANALDIA  
B. Goikoetxea eta M.A. Otsoaren eskutik "Aitzgorri mendilerroa"  
izenburupean.  
Tokia eta ordua: 7,30etan Kultur Etxean.

## AZAROAK 21 IGANDEA

**11,30ETAN UDAL TXISTULARI BANDAREN KALEJIRA**  
**12,30ETAN MEZA MORKAIKO M.E.KO HILDAKOEN OROIMENEZ.**  
**ONDOREN, LEHENDAKARI IZANDAKOEI OMENALDIA ETA HARITZ**  
**DANTZA TALDEAREN SAIOA.**  
**ONDOREN, ELKARTEKO PLAKA BERRI BATEN DESESTALTZEA.**  
**2,30ETAN BAZKARIA IKASTOLAKO FRONTOIAN.**  
**(BERTSOLARIAK, DANTZALDIA...)**

LAGUNTZAILEAK: EROSKI ETA ARTEGI

## AZAROAK 26 OSTIRALA

Rikardo Arregiren HITZALDIA, DIAPOSITIBAZ lagundurik  
Gaia: Izozketak  
Tokia eta ordua: 7,30etan Kultur Etxean.



# Zine eta osasun programa irakaskuntza ertainean

**Pasa** den astean hasi zen Batxiller Institutuko eta Lanbide Heziketarako ikasleentzako "Zinea eta Osasuna" izeneko programa. Aurten laugarren urtea beteko du programa honek martxan jarri zenetik.

Aurten, berrikuntza lanak direla eta, zine emanaldiak Herriko Antzokian izan beharrean Lanbide Heziketarako Institutuko biltzar aretoan izango dira. Iaz, hiru zine emanaldi egin behar izan ziren aldi bakoitzeko, egun bakoitzean, 780 ikasle joaten baitziren.

Irudi Biziak-en zine egitarauko

lehen pelikula "Ellas dan el golpe" izan zen eta Elgoibarren joan zen azaroaren 4ean eman zuten. Ikasleak, irakasleekin batera joaten dira emanaldietara eta, ondoren, Etika eta Erlijio klaseetan, pelikularen gaiak buruz hitz egiten dute.

Programa honen arduraduna "Irudi Biziak" izeneko erakundea da eta Elgoibarko Udaleko Drogomenkotasunen Prebentziorako Zerbitzuak koordinatu eta diruz laguntzen du. Izan ere, "Zinea eta Osasuna" programa, zehaztu gabeko prebentzioaren baitan dago.

## Musika Bandak Eibarren joko du

Igandean, hilak 14, Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertu bat emango du Eibarren San Andres jaien egitarauaren baitan. Goizeko 11etan, Musika Bandak Eibarko kaleak kalejiran zeharkatuko ditu. Ondoren, eguerdiko 12,15etan, kontzertuari hasera emango zaio Udaletxeko Kultur Aretoan. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean Bandak obra hauek joko ditu:

- "Als Amics", Pasodoblea (J. Insa)
  - "Tannhauser", Marcha (R. Wagner)
  - "Spiritual Rhapsody", Negro Espiritual (P. Yoder)
  - "Boccaccio", Obertura (F. Von Suppé)
  - "H. Alpert Selection 1", Selektzioa (H. Alpert)
  - "Happy Mallets", Xilofono eta Banda (H. Evers)
- (Bakarlarria, Gorka Mujika)

## Grabatu kalkografiko ikastaroa

Egur arte lantegiak grabatu kalkografiko ikastaroa antolatu du datorren azaroaren 22tik abenduaren 15ra bitartean. Klaseak asteleheneretik ostiralera izango dira arratsaldeko 6etatik 8etara. Izena emateko Egur lantegiaren lokalera jo (Ubitarte plaza) arratsaldeko 6,30etatik 8ak bitartean. Ikastaroa Aldundiaren eta Udalaren dirulaguntzari esker egingo da.



Ikasketa ertainetako ikasleek hileroko pelikula bat ikusi ahal izango dute.

**CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak  
Obra komertzialak  
Bainu manparak*

Urasandi 12 behea  
Tel-Fax: 74 04 89

# 13 Larunbata

19,30 ZINEA

"Máximo riesgo"

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

# 14 Igandea

9,00 MENDI GARBIKETA

Eskoletako haurrekin

(Morkaiko Hiru Iturri)

Irteera: Foruen enparantzatik.

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

17,00 ZINEA

"Máximo riesgo"

Haurrentzako prezioa: 150 pta.

19,30 ZINEA

"Máximo riesgo"

# 16 Asteartea

19,00 MORKAIKO M.E.ren  
ARGAZKI ERAKUSKETA ETA  
LIBURUAREN AURKEZPENA

Tokia: Kultur Etxea

Argazki erakusketa hilaren 16tik  
28ra izango da.

19,30 MENDI DIAPOSITIBA  
EMANALDIA

Emaleak: Iñurrategi anaiak.

Gaia: Makalu mendia

Tokia: Kultur Etxea

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

# 19 Ostirala

19,00 SOZIOLINGUISTIKA  
IKASTAROA

4. saioa

Tokia: Kultur Etxea

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

19,30 MENDI DIAPOSITIBA  
EMANALDIA

Emaleak: B. Goikoetxea eta M.A.

Otsoa

Gaia: Aizkorri Mendi Lerroa

Tokia: Kultur Etxea

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

## Z I N E A

### "Maximo Riesgo"

Gabe Walker-ek (Sylvester Stallone) ezin du gainditu bere lagun baten emaztegia, eskalatzeko zegoela, ezin salbatu izana. Rocosas mendietako erreskate zerbitzutik erabat aldentzen da eta bere emaztegi ohiarekin topo egiten du. Honek erreskate misio batean laguntzeko proposatzen dio. Izan ere, 100 milioi lapurtu dituen gangster baten hegazkinak istripua izan du mendian.

## Z I N E A

## Mendaron

UDAZKEN EGUNA  
Azaroak 13 larunbata

11,00 Kanpai jotze eta kalejira trikitilariekin

12,00 Erromeria Santa Kutzen trikitilari eta bertsolariekin.

16,30 Kalejira *Bizi Poza* txarangarekin

17,00 Kuadrilen arteko jokuak  
Goñati pilotalekuan: Txinga eramatea, kaskara batzeak, Sokatira, bizikleta gaineko abilezia proba, aulki jokua, korrika proba

**Jarraian** afalordurarte kalejira eta txikiteoa Bizi Poza txarangarekin.

23,30 Deband, kokoteraino eta Lilimoon taldeen kontzertua

**Jarraian** Goizalderarte kanpo diskoteka

KURUTZPE K.E.AREN  
XXV. URTEURRENA EGUNA  
Azaroak 14 igandea

8,00 Txokolatada Azpilgoetako elizpean

10,00 Kalejira Mendaroko Gazteak Dantza Talde eta txistulariekin

11,00 Meza Nagusia Azpilgoetako elizan hildako bazkideen omenez.

12,00 Mendaroko Gazteak Dantza Taldearen saioa Azpilgoetako plazan.

14,30 Direktiba ezberdinetan egon direnen anaikidetzaz bazkaria Arboleta jatetxean.

ANTOLATZAILEA: KURUTZPE K.E.

# Artegi LEHIAKETA

**AZAROKO GALDERA:** Elgoibarko Elkarte ezagun batek bere 50. urteurrena ospatzen du aurten. Ba al dakizu zein elkarteri buruz ari garen?.....

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA..... TEL.....

Azaroak 29an **SAMSUNG** Mikrouhin labe bat zozketatuko dugu zuzen erantzuten duzuenon artean. (Anima zaitetze eta ekarri erantzuna BARREnera. Nafarroa enparantza 2.)

**Etxebizitzak**

Bi gela eskeintzen ditut. Lo eta erropak garbitu. **Tel. 74 09 44**

Etxe bat alokatuko nuke Elgoibarren. **74 41 12 Nekane**

**Lana**

Frantseseko klaseak ematen ditut maila guztietan, Frantsesa naiz eta titulua dut. Emakumeekin mintzamen lantzeko talde bat sortu nahi nuke arratsaldeko 3etatik - 5etara bitartean. **74 04 59**

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak egiteko prest nago. **Ainhoa 74 16 89**

Marrazketa Teknikoan arazoak baldin badituzu klase partikularrak emateko prest nago. EFP eta BTIko ikasleei. **Deitu 12:30etatik 2:30etara 74 04 69 zenbakira**

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientziaduna eta Eibarko erresidentzian hilabeteko praktikak egin ditut. **74 23 30 Elena**

Haur bat zaintzeko prest nago. **Lorea 74 28 53**

Etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. **74 05 34**

**Salerosketak**

Brother trikotsa bat saltzen dut. bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea. **Tel: 74 18 51**

Anayak etxean garaje bat alokatzen da. Bi kotxerentzat. "Altillua" du. Almazenerako aproposa. **74 34 65**

San Antolin auzoan, taberna ondoan, lokala daukat alokatzeko. **Tel.:74 17 95**

Bigarren eskuko kotxe bat erosiko nuke. Citroen C 15 furgoneta edo antzeko zerbait. Diesela. **Deitu: 74 36 34**

San Roke bailaran terreno batzuk salgai ditugu. **74 39 89 Rufina**

Bi bizikleta BH tolesgarriak saltzen ditut. 16.000 pta biak. **74 04 59**

Ford fiesta XR 2 salgai. SS-5581-V. Oso ondo zainduta. **Deitu 74 13 46**

Karrerretarako bizikleta bat salgai. Berri-berria. "Mendiz" markakoa. **Tel. 74 10 93**

Musika ekipo bat saltzen dut. Irratia, ekualizadorea, pletina bat eta tokadiskoa. 25.000 pta. **Deitu 74 03 55 Iñigo**

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari: 74 21 35 / 22 10**

Botadun patin pare bat saltzen dut. Paraleluak. 36 zenbakia. **Koldo: 74 12 85**

Kawasaki GPZ 500 S SS-AJ 10.000 km. **Tel. 74 28 32**

Sukaldeko altzariak salgai. XEY markakoak. Erabili gabeak. Prezio ezinhobeak. **Amaia Tel.:74 09 23**

**Kontaktuak**

**LIMOIZKO KREMA: Osagaiak:**

6 arraultza, 2 gorringo, 2 limoi azalen birrindua, 4 limoien zukua, 150 gr azukre, 150 gr gurina eta 20 gr maizena.

**Nola egin:**

Kazuela batian gurina ezik beste osagai guztiak nahastuko ditugu eta sutan ipini ziri batekin eta ondo eragin. Krema hau loditzen denean sutik atera era gurina botako diogu poliki poliki ziriarekin eraginez. **Ibon Guruzeta**

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

## CRISTOBAL, GOMEZ, OTALORA ETA RUIZ DK.ak


Honako aseguru etxeekin lan egiten dugu: Iguatorio Medico Quirurgico, Asisa, Capisa, Previa, Lagun Aro, Diputación Mediciatc eta partikularrak.

- ▶ Azterketa ginekologikoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- ▶ Haurdunaldiaren kontrola
- Txekeoak
- ▶ Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- ▶ Antzutasuna
- Antisorkuntza
- ▶ Menopausiaren tratamendua

*Guzti hau Eibarren bertan urrutirago joan gabe!!*

Urkizu Pasealekua, 11  
(Orbeako dorrea lehenengo solairua)  
☎ 12 10 21 - 12 02 00 EIBAR

# PAGOAGA S.A. Iturgintza



**GAS INSTALATZAILEA, IG4 baimenarekin**

**Gas Naturala  
eta  
Propanoa**

**KANPORAKO ETA ETXE BARRURAKO.**

- ↳ ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- ↳ IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN


**☎ 74 02 79-74 05 12 ELGOIBAR**



## Eibarmoto

*Motorren salmenta  
eta konponketa*

**Azaroaren 19tik  
30era Eibarmoto  
itxita egongo da  
oporak hartzen  
ditugulako**



**Matxaria, 2. TEL-FAX: (943)11 33 32 - 20 600 EIBAR**